



Maite Arrazola eta Ander Larequi Antiguako jai batzordeko kideak, 'Herri izaera' horma irudiaren aurrean. **B. PARRA RODRIGUEZ**

Betiko indarrarekin eta «bukaera sorpresa» batekin datoz Antiguako jaiak

Gaur hasiko dituzte Antiguako San Sebastian jaiak, ohiko legez, txupinazoarekin eta poteo elegante jendetsuarekin. Berritasun batzuekin eta betiko jarduera arrakastatsuekin, auzo guztia-erentzako jaiak antolatu dituzte aurten ere.

✎ Beñat Parra Rodriguez

San Sebastian eguna Donostia osoan ospatzen da; segur aski, hirian modu bizienean ospatzen den jaia da. Bada, esan daiteke Antiguan are biziagoa dela ospakizuna, egun batetik harago baitoa: bi asteburutako jaiak antolatzen dituzte horren bueltan. Gaur arratsaldean botako dute txupinazoa eta, poteo elegante arrakastatsuarekin, jaietan murgilduko da auzo osoa, hurrengo igandera arte.

Txupinazoan, auzoko eragile edo pertsonaren bat omentzen dute urtero, eta Txantxarreka gaztetxea omenduko dute aurten, bertan garatzen duten Bazkari Solidarioak egitasmoarengatik. Duela urtebete inguru abiatutako egitasmoa da, hilean behin antolatzen dutena auzoko hainbat kuadrilla, talde edo eragilerekin elkarlanean. Egun horretan, edonor joan daiteke gaztetxera bazkaltzera, borondatearen truke,

«bermatzeko mundu guztiak bazkaldu ahal izatea egun horretan, dirua eduki beharrik gabe», antolatzaileek azaldu dutenez. Bazkariak beraz gain, kontzertuak, jolasak, aurkezpenak eta bestelako jarduerak antolatu ohi dituzte egun horretan, «partekatzeko espazio bat edukitzeko eta aisialdi alternatibo bat eskaintzeko» helburuarekin. Era berean, Kaleko Afari Solidarioak taldearentzat ere kozinatu ohi dute egun horretan gaztetxean. «Ekarpen handia egiten dio horrek auzoari», nabarmendu du jai batzordeko kide Ander Larequik.

Berritasun batzuekin datoz

Funtzionatzen duena aldatu behar ez dela esan ohi da, eta ideia horri eutsi diote Antiguako jaietan, oro har. Hala ere, berritasunak ongi-etorriak izan ohi dira, eta, hain zuzen ere, jaien amaierarako (hilaren 24 gauerako) prestatu dute aurtengo berritasun nagusia: «Jaien itxiera sorpresa izango da, baina oraindik ezin dugu esan zer izango den. Kuadrillen eguneko gauean izango da eta uste dugu jendeari asko

gustatuko zaiola, jende asko mugitzen duen zerbait delako», azaldu du Larequik. Jai batzordekoek ez dute pistarik eman nahi izan, beraz, hurrengo larunbateko gauean Antiguako frontoira gerturatzea da jaien itxiera berezi horren berri izateko modu bakarra.

Bestalde, ia ez estreinakoz antolatu zuten jaietako krosa, eta «arrakasta ikusita», aurten ere antolatu dute: «Buff berezi bat egin dugu kroserako, Matia kaleko harri ezagunaren marrazkiarekin, eta parte hartzaile guztiei emango diegu. Oraindik dortsal gutxi batzuk gelditzen dira kroserako, beraz, jendea izena ematera animatzen dugu!», nabarmendu du Larequik. Ajearekin



600 bat lagun elkartu ohi dira urtero Antiguako kuadrilla bazkarian. **ASIÉR GONZÁLEZ DE SAN PEDRO**

Antiguak «herri izaera» duela nabarmendu dute jai batzordekoek, eta hori, bereziki, San Sebastian egunean bertan ikusten dela

egongo dira antiguatar asko igande goizean, baina Maite Arrazola jai batzordeko kideak argi dauka bihar amunari buelta emateko aproposa dela krosa: «Giro polita egoten da, auzotar asko animatzen da ibilbidean zehar, eta erraz egiten da. Gozamina da sortzen den giroa».

Jarduera guztien artean, bestalde, nabarmentzekoak dira Istingorra kalean egingo dituzten bi. Alde batetik, larunbat honetan, auzoko «gazteak»

giza proban lehiatuko dira «gazte-txoen» aurka; ikuskizuna ziurtatuta dago. Bestetik, hurrengo larunbatean, Bodegon Fest jaia egingo dute, hurrengo egunean behin betiko agur esango duen Bodegon tabernaren eskutik.

Auzotik eta auzoarentzat

Arrazolak eta Larequik argi dute zer diren auzoko jaiak: «Auzoko eragile askoren laguntza eduki dugu, urteroko legez, jaiak antolatzeke. Izan ere, auzoak egindako jaiak dira, auzoarentzat eta auzoaren laguntzarekin». Horrela, «oso pozik» agertu dira batzordekideak, aurten 18 urte inguruko hainbat gazte sartu direlako jai batzordean, eta horrek adin tarte guztietako auzotarrantzako jarduerak antolatzen lagundu dielako. Ildo horretatik, auzotarren

inplikazioa ezinbestekoa dela gehitu du Arrazolak: «Garrantzitsua da auzotar ahalik eta gehien inplikazioa lortzea, azkenean, zuk zuzenean parte hartzen baduzu egitasmo jakin batean, gehiago zainduko duzu, gehiago saiatuko zara eta, agian, jai batzordean sartu nahiko duzu etorkizunean».

Antiguak «herri izaera» duela nabarmendu dute jai batzordekoek, eta hori, bereziki, San Sebastian egunean bertan ikusten dela dio Arrazolak: «Danborradak daude une oro kalean, eta ikusten da jendea bizirik eta bizitzen; niri herri izaera transmititzen dit horrek». Horrela, auzotarrak zein donostiar guztiak jaietan parte hartzera animatu dituzte: «Jai giro ederra egongo da aurten ere, eta ziur oso ondo pasatuko dutela!». ●

aek euskara praktikoa

Euskara eroso
ikasi eta bizi

DONOSTIA

EUSKARA - IKASTAROAK

Antiguako AEK

Erregezain, 22 · 943 21 80 88 · antigua@aek.eus

Amara Berri AEK

Ordoñez 7 (ARCCO parean) · 943 47 45 92 · amara@aek.eus

Groseko Irrintzi AEK

Iztueta 3, behea · 943 32 76 11 · gros@aek.eus





OSTIRALA 16

16:30

Haurren jaitsiera musikatua, Jakintzako beheko eraikinetik.

17:00

Kolore festa, Gaskonia plazan.

18:00

Txokolate jana, Gaskonia plazan.

18:30

Zezensuzkoa, Gaskoniatik Benta Berri plazara.

19:00

Luntx herrikoia, Kontsumo Taldearen eskutik, Benta Berri plazan.

19:30

Txupinazo antiguatarra, Benta Berri plazan.

19:45

Poteo elegantea, Arranopola txarangarekin eta edabe magikoz lagunduta, Antiguan zehar.

22:30

Auzorock: Ttaka, Mr.Luken eta DJ Tritona, Antiguako frontoian.

LARUNBATA 17

10:00

Haurrentzako puzgarriak, Super Amararen eskutik, Antiguako frontoian.

11:00

Buruhandi eta erraldoiak, Loretope konpartsaren eskutik, auzoan zehar.

17:30

Giza proba, Sareren eskutik, Istingorra kalean.

18:30

Orkestra txaranga, Istingorra kaletik auzoan zehar.

19:30

Antzerkia: *3 en impro, impro impar*, Lugaritz Kultur Etxean.

20:30

Gaztetxean kontzertuak.

22:30

Antiguarock: Txopet, Marte Lasarte eta DJ Jaleo, Antiguako frontoian.

IGANDEA 18

10:00

Kros herrikoia, Benta Berri plazatik.

12:30

Toka txapelketa, Txirain elkartearen.



ASTELEHENA 19**15:30**

Jakintza ikastolako danborrada, Antiguako frontoian.

19:00

Iraunkorrek txarangarekin kalejira, Antiguako kaleetan zehar.

00:00

Ikurrinaren igoera Sansustene elkartearen danborradaren eskutik, Benta Berri plazan.

ASTEARTEA 20**03:00-06:00**

Danborrada herrikoia Antiguotar guztiontzat Matia kalean zehar, Iraunkorrek txarangak lagunduta.

12:00

Gaupaseroen argazkia, Antiguako frontoian.

**12:00**

Reimy DJ-a auzotik.

00:00

Ikurrinaren jaitsiera Baso Etxea elkartearen eskutik, Benta Berri plazan.

OSTEGUNA 22**18:00**

Ibaeta abesbatza, Lugaritz Kultur Etxean.

19:00

Emakumeen pala txapelketako fase finala, Antiguako frontoian.

OSTIRALA 23**17:00**

Haurren ginkana, Gaskonia plazan.

17:30

Nerabeentzako kuadrilla olinpiadak, Auskalo astialdiaren eskutik, Sert plazan.



Atlas

fisioterapia



Heriz, 10 behea
(Antigua)
943-3114 00
info@atlasfisio.eus
www.atlasfisio.eus



OLIYOS
TABERNA JATETXEA

Ondo pasa jaietan!

Erregezaintza, 4, Donostia · Tel.: 943-21 49 89



18:30

Kantujira, Kantua eta Zikinaren eskutik, Benta Berri plazatik abiatuta.

19:00

Ziklokros kinkia eta ziklokontzertua:
Old Time Spooks, Pio Baroja parkean.

19:30

Kontzertua: 61. Jazzaldia tokiko taldeen hautaketa kontzertua, Lugaritz Kultur Etxean.

22:00

Kontzertu kinkiak: Time and Punishment eta Hil, Antiguako frontoian.

LARUNBATA 24

10:30

Buruhandi eta erraldoiak, Loretope konpartsaren eskutik, auzoan zehar.

12:00

Joaldunak, auzoan zehar.

Mikeltxi DJ-a (haurrak), Lugaritz Kultur Etxearen eskutik, Antiguako frontoian.

13:00

Kalejira, Iraunkorrek txarangaren eskutik, Antiguatik Ibaetaraino.

15:00

Kuadrillen bazkaria, Ibaetako frontoian.

17:00

+2 urte txikien gunea: marrazki tailerra, haurtxokoaren eskutik, Alfontso XIII.a plazan.

5-11 urte haurtxoko gunea: aurpegi margoketa, haurtxokoaren eskutik, Alfontso XIII.a plazan.

12-17 urte gazteleku gunea: jolasen gunea eta zigilu tailerra, gaztelekuaren eskutik, Alfontso XIII.a plazan.

18:00

Mus txapelketa, Txirain elkartean.

5-11 urte haurtxoko gunea: paperezko txotxongilo tailerra, haurtxokoaren eskutik, Alfontso XIII.a plazan.

Bodegon Fest, Istingorra kalean.

18:30

12-17 urte gazteleku gunea: herri kirolak, gaztelekuaren eskutik, Alfontso XIII.a plazan.

Txita DJ-a, Acida y Aluronica, Ibaetako frontoitik txosnetaraino.

19:00

5-11 urte haurtxoko gunea: jolas dinamikoak, haurtxokoaren eskutik, Alfontso XIII.a plazan.

19:30

Antzerkia: *Ahora! Cia*, Maite Guevara, Lugaritz Kultur Etxean.

22:30

Kontzertuak: Bad Sound System eta Selektah Stepi eta jaien itxiera sorpresa, Antiguako frontoian.

IGANDEA 25

16:30

Mus txapelketa, Antiguotarrak elkartean.

18:00

Bertso saioa, Txirain elkartean.



LEGAZPI 6
EUSKALTEGIA

Antiguako jaietan ere, euskara lagun!



Guridi Maisua, Z/G, Antigua - Kanpandegi, 1, Parte Zaharra



943-2199 07



legazpi6@legazpi6.eus